PLAN PARTZIALA IDAZTEKO IRIZPIDEAK:

- ERAIKIGARRITASUN APROBETXAMENDUA:

Okupazioa, gehienez: 0,40 m2 eraikigarri solairuan/m2.

Eraikigarritasuna, gehienez: 0,50 m2 teilatu eraikigarri/m2.

- LURRAREN ERABILERA XEHEKATUA:

II.4.3 planora, plan partzialean definitu beharreko antolamendu lagungarria bilduko da.

- ERAIKUNTZA ANTOLAMENDUA

Antolamendua kasuan kasuko plan partzialak ezarritakoa izango da.

II.4.3 eta II.5.3 planoetan, poligonoaren balizko egituraketari buruzko ildo lagungarriak eskainiko dira.

Planeamendu arautegian eskatutako zuzkidurak xedatuko dira.

- BIDE ETA APARKALEKU SAREA:

Kanpoko loturak garatzeko bideak erabilera eta jabari publikokoak dira. Aparkaleku zuzkiduraren gutxienezko estandarra: plaza 1/100 $m^2$ lur eraikigarri.

Bide sarearen diseinua orientagarria da, eta behin betiko egituraketa Arabako Foru Aldundiaren Herrilan Sailak esandakoa izango da.

- URBANIZAZIOA:

Sektore osoa hartzen duen urbanizazio proiektua idatziko da.

- LAGAPENAK:

Indarreko legeriak ezarritako aprobetxamendu lagapenak egingo dira.

Doan lagako dira, behin behar bezala urbanizatuta, erabilera eta jabari publikorako lurzorua eta legez ezarritako zuzkidura lurrak.

CRITERIOS QUE HAN DE REGIR LA REDACCIÓN DEL PLAN PARCIAL:

-APROVECHAMIENTO EDIFICATORIO:

Ocupación máxima: 0,40 $m^2$. edificables en planta/$m^2$.

Edificabilidad máxima: 0,50 m2. de techo edificable/$m^2$.

-USOS PORMENORIZADOS DEL SUELO:

En el plano II.4.3 se plantea la ordenación orientativa a definir en el Plan Parcial.

-ORDENACIÓN EDIFICATORIA:

La ordenación será establecida por el correspondiente Plan Parcial.

En los planos II.4.3 y II.5.3 se facilitan unas pautas orientativas sobre la posible configuración del polígono.

Se dispondrán todas las previsiones dotacionales exigidas en el reglamento de planeamiento.

- RED VIARIA Y APARCAMIENTO:

Los viales a través de las cuales se resuelven las conexiones exteriores serán de uso y dominio público. La dotación de aparcamiento deberá cumplir el estándar mínimo de 1 plaza/100 $m^2$.t.e.

El diseño de la red viaria es de carácter orientativo, debiendo someterse su configuración definitiva a la conformidad del Departamento de Obras Públicas de la Diputación Foral de Álava.

- URBANIZACIÓN:

Se redactará un proyecto de urbanización que abarque todo el Sector.

- CESIONES:

Se efectuarán las cesiones de aprovechamiento que establece la legalidad vigente.

Se cederá gratuitamente, una vez debidamente urbanizado, el suelo destinado a uso y dominio público y los terrenos dotacionales legalmente establecidos.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**7.187**

**968/2006 FORU AGINDUA, Kanpezuko udal planeamenduko ordezko arauen xedapen aldaketaren espedienteari behin betiko onarpena ematen diona. Espediente hori OD-I1 industriarako hiri lurzoruan herritarren osasun, babes eta segurtasunerako ekipamenduak jartzea baimentzeari buruzkoa da.**

AURREKARIAK

Lehena.- Kanpezuko Udalak 2006ko uztailaren 5ean udal planeamenduko ordezko arauen aipatutako xedapen aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jendaurrean jartzea ere. Horretarako iragarki bana argitaratu zen 2006ko uztailaren 12ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (78. zenbakia), 2006ko uztailaren 11ko “El Diario de Noticias de Álava” egunkarian eta udal iragarki taulan.

Bigarrena.- Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2006ko abuztuaren 16ko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, han behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espediente horri 2006ko abuztuaren 22an eman zioten sarrera foru aldundian.

Hirugarrena.- Martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuaren eranskinaren a) idatz-zatiko hirugarren puntuan araututakoaren ildotik (dekretu horretan jasotzen da Autonomia Erkidego osorako erakundeek Arabako Lurralde Historikoari hirigintza alorrari dagozkionetan aginpideak eskualdatzea), Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak aztertu zuen espedientea urriaren 30ko 8/2006 bilkuran.

Laugarrena.- Era berean, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espedientearen gaineko txostena eman zuen, azaroaren 6ko 9/2006 bilkuran.

OINARRIAK

Lehena.- Kanpezuko Udalak izapidetzen duen agiriak OD-I1 industriarako hiri lurzoruaren araudia aldatzea du helburu, inguru

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**7.187**

**ORDEN FORAL 968/2006, de 8 de noviembre, en relación con la aprobación definitiva del expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Campezo, relativa a permitir el uso de equipamientos sanitario y de protección y seguridad ciudadana en suelo urbano industrial OD-I1.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 5 de julio de 2006, el Ayuntamiento de Campezo acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 78, de 12 de julio de 2006, en el periódico “El Diario de Noticias de Álava” de 11 de julio de 2006 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 16 de agosto de 2006, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava, para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 22 de agosto de 2006.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 8/2006, de fecha de 30 de octubre.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 9/2006, de 6 de noviembre.

FUNDAMENTOS

Primero.- El documento que tramita el Ayuntamiento de Campezo tiene como único objetivo la modificación de la normativa de la zona

horretan herritarren segurtasunerako (suhiltzaileen parkea) eta osasunerako (Gurutze Gorriaren egoitza eta anbulantzietarako garajea) ekipamenduak jartzea baimendu ahal izateko.

Bigarrena.- Egun inguru horretan dagoen industria mota (txikia edo ertaina) dela eta, horiek jartzeak ez du haien artean inolako bateraezintasunik sortzen.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Sailaren Ur Zuzendaritzak oniritzia eman diote espedienteari.

Laugarrena.- Goiko guztia gorabehera, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak, A-132 errepiderako sarbidea dela eta, zenbait iradokizun egin ditu. Txostenaren arabera sarbidea ondokoei jarraituz egingo da.

I – Errepidearekin bat egiten duen lekuan bihurgunearen barruko erradioak, gutxienez, 15 metro izango ditu. Era berean, Estatuko errepideetarako sarbideak, zerbitzu-bideak eta zerbitzuen instalazioen eraikuntza arautzen dituen Ministerioaren 1997ko abenduaren 16ko Agirian xedatzen diren diseinuarekin bat etorriz, abiadura aldatzeko erreiak jarriko dira.

II – Sarbideak, errepidearen norabidearen kontra egingo denak, aldapa behera txiki-txikia izango du. Horiek horrela, euri ura ez da errepidera isuriko, areka edo inguruko lursailetara baizik. Horrek errepidea luizietatik saihestuko du.

Aurreko iradokizunez gain, ondokoak ere egiten ditu:

I – Bideen elkargunean “stop” seinalea (R-2 motakoa, gutxienez, 900 milimetrokoa) jarriko da.

II – Sarbidea eta errepidearen arteko elkargunea zolatzean, egun dagoen aglomeratu geruzaren ebaketa fresa zerra bidez egingo da.

III – Eskatutako lanak egitean, A-132 errepidearen egiturari kalterik egingo balitzaio, eskatzaileak konponduko luke eta lanek kaltetutako eremu guztian gurpil-geruza berria botako litzateke. Era berean, egun indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorriz, seinale horizontalen eta bertikalen ardura ere berea izango litzateke.

Ondorioz, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Kanpezuko udal planeamenduko ordezko arauen xedapen aldaketaren espedienteari behin betiko onarpena ematea ondoko aldaketa eta iradokizunekin. Espediente hori OD-I1 industriarako hiri lurzoruan herritarren osasun, babes eta segurtasunerako ekipamenduak jartzea baimentzeari buruzkoa da eta udalak berak sustatu eta izapidetu zuen.

A. Aldaketak:

I – Errepidearekin bat egiten duen lekuan bihurgunearen barruko erradioak, gutxienez, 15 metro izango ditu. Era berean, Estatuko errepideetarako sarbideak, zerbitzu-bideak eta zerbitzuen instalazioen eraikuntza arautzen dituen Ministerioaren 1997ko abenduaren 16ko Agirian xedatzen diren diseinuekin bat etorriz, abiadura aldatzeko erreiak jarriko dira.

II – Sarbideak, errepidearen norabidearen kontra egingo denak, aldapa behera txiki-txikia izango du. Horiek horrela, euri ura ez da errepidera isuriko, areka edo inguruko lursailetara baizik. Horrek errepidea luizietatik saihestuko du.

B. Iradokizunak:

I – Bideen elkargunean “stop” seinalea (R-2 motakoa, gutxienez, 900 milimetrokoa) jarriko da.

II – Sarbidea eta errepidearen arteko elkargunea zolatzean, egun dagoen aglomeratu geruzaren ebaketa fresa zerra bidez egingo da.

III – Eskatutako lanak egitean, A-132 errepidearen egiturari kalterik egingo balitzaio, eskatzaileak konponduko luke eta lanek kaltetutako eremu guztian gurpil-geruza berria egingo litzateke. Era berean, egun indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorriz, seinale horizontalen eta bertikalen ardura ere berea izango litzateke.

Bigarren.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, espedientea zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

industrial OD-I1 a fin de permitir en ella los usos de equipamiento comunitario de Seguridad Ciudadana (parque de bomberos) y Sanidad (dependencias de Cruz Roja, guarda de ambulancias, etc.)

Segundo.- Dado el tipo de industria, pequeña y media, existente en la actualidad, su implantación no genera ningún tipo de incompatibilidad entre ellas.

Tercero.- El expediente ha sido informado favorablemente por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y la Dirección de Aguas del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Cuarto.- No obstante lo anterior, la Dirección de Obras Públicas y Transportes ha efectuado unas observaciones referentes al diseño del acceso del terreno a la carretera A-132. Según el informe ese acceso se realizará siguiendo estos criterios:

I - El radio interior de la curva en la intersección con la carretera será igual o superior a 15,00 metros, y se ejecutarán cuñas de cambio de velocidad, de acuerdo con el diseño recogido en la Orden Ministerial de 16 de diciembre de 1997 por la que se regulan los accesos a las carreteras del Estado, las vías de servicio y la construcción de instalaciones de servicios.

II - El acceso se realizará con una pendiente mínima de bajada en sentido contrario a la carretera, de modo que las aguas pluviales no viertan a ésta, sino a la cuneta o al terreno y se evite el arrastre de tierra o cualquier material a la carretera.

Además efectúa estas advertencias:

I – En la intersección se colocará una señal modelo R-2 de “stop” de 900 milímetros de tamaño mínimo.

II – A la hora de realizar la conexión de la pavimentación del camino de acceso con el firme actual de la carretera, el corte de la capa de aglomerado existente se realizará con sierra de disco.

III – Si como consecuencia de la ejecución de los trabajos solicitados, se viera afectada la sección estructural de la carretera A-132, el solicitante se responsabilizará de su correcta reposición y se ejecutará una capa de rodadura en todo el tramo afectado por las obras, así como la señalización horizontal y vertical según disposiciones recogidas en normativa vigente.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Campezo, relativa a permitir el uso de equipamientos sanitario y de protección y seguridad ciudadana en suelo urbano industrial OD-I1, promovida y tramitada por el Ayuntamiento del citado municipio, con las siguientes modificaciones y advertencias:

A. Modificaciones:

I - El radio interior de la curva en la intersección con la carretera será igual o superior a 15,00 metros, y se ejecutarán cuñas de cambio de velocidad, de acuerdo con el diseño recogido en la Orden Ministerial de 16 de diciembre de 1997 por la que se regulan los accesos a las carreteras del Estado, las vías de servicio y la construcción de instalaciones de servicios.

II - El acceso se realizará con una pendiente mínima de bajada en sentido contrario a la carretera, de modo que las aguas pluviales no viertan a ésta, sino a la cuneta o al terreno y se evite el arrastre de tierra o cualquier material a la carretera.

B. Advertencias:

I – En la intersección se colocará una señal modelo R-2 de “stop” de 900 milímetros de tamaño mínimo.

II – A la hora de realizar la conexión de la pavimentación del camino de acceso con el firme actual de la carretera, el corte de la capa de aglomerado existente se realizará con sierra de disco.

III – Si como consecuencia de la ejecución de los trabajos solicitados, se viera afectada la sección estructural de la carretera A-132, el solicitante se responsabilizará de su correcta reposición y se ejecutará una capa de rodadura en todo el tramo afectado por las obras, así como la señalización horizontal y vertical según disposiciones recogidas en normativa vigente.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Hirugarren.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Laugarren.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoaren aurrean, ekintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesatuek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete, eta beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen erakunde berberari. Horretarako, hilabete izango da, hura jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko azaroaren 8a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**7.188**

**971/2006 FORU AGINDUA, azaroaren 8koa. Lantziegoko udal planeamenduko ordezko arauen 8. aldaketaren espedienteari behin betiko onarpena ematen diona. Espediente hori Casablanca II industrialdeko SAUI-3 sektorearen mugaketari buruzkoa da.**

AURREKARIAK

Lehena.- 2006ko maiatzaren 4an Lantziegoko Udalak udal planeamenduko ordezko arauen 8. xedapen aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hilabetez jendaurrean jartzea ere. Azken horretarako iragarki bana argitaratu zen 2006ko maiatzaren 24ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (57 zenbakia), 2006ko maiatzaren 12ko “Deia” egunkarian eta udal iragarki taulan.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2006ko ekainaren 26ko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, han behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espediente horri, hasiera batean, 2006ko irailaren 13an eman zioten sarrera foru aldundian eta, aldundiak eskatutako argibide kartografikoak jasotakoan, 2006ko urriaren 11n. Era berean, Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuaren Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlanari 2006ko abuztuaren 31n eman zioten sarrera aldundian.

Hirugarrena.- Martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuaren eranskinaren a) idatz-zatiko hirugarren puntuan arautut akoaren ildotik (dekretu horretan jasotzen da Autonomia Erkidego osorako erakundeek Arabako Lurralde Historikoari hirigintza alorrari dagozkionetan aginpideak eskualdatzea), Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak aztertu zuen espedientea urriaren 30ko 8/2006 bilkuran.

Laugarrena.- Era berean, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espedientearen gaineko txostena eman zuen, azaroaren 6ko 9/2006 bilkuran.

OINARRIAK

Lehena.- Araba Garapen Agentzia SA enpresak sustatutako aldaketak lurzoru urbanizaezineko (nekazaritza baliabideen babesgune) 1,496 ha industriarako lurzoru urbanizagarri (SAUI-3) bihurtu nahi ditu, mugakide den industriarako lurzoru urbanizagarriarekin batera 34 hektareako industrialdea eraikitzeko Laguardian.

Bigarrena.- Industriarako lurzorua eskaintzeko arrazoia A-124 errepidearen ondoan beste industrialde bat egitea da, zeren eta Casablanca eta El Carrascal industrialde auzokideak erabat garaturik baitaude, hots, lurzati guztiak saldurik baitituzte.

Hirugarrena.- Halaber, Hirigintza eta Ingurumen Saileko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak emandako ingurumen eraginari buruzko

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.”

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 8 de noviembre de 2006.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**7.188**

**ORDEN FORAL 971/2006, de 8 de noviembre, en relación con la aprobación definitiva del expediente de 8ª Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Lanciego, referida a la delimitación del Sector SAUI-3 incluido en el ámbito del polígono industrial Casablanca II.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 4 de mayo de 2006, el Ayuntamiento de Lanciego acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 57, de 24 de mayo de 2006, en el periódico Deia de 12 de mayo de 2006 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 26 de junio de 2006 a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava, para su sanción definitiva, donde tuvo entrada el día 13 de septiembre de 2006 y posteriormente el 11 de octubre de 2006, una vez ampliada la información cartográfica, según solicitó la Diputación. Asimismo, el correspondiente Informe Definitivo elaborado por el Servicio de Medio Ambiente y Diversidad relativo al Procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, tuvo entrada el día 31 de agosto de 2006.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado favorablemente por la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 8/2006, de fecha 30 de octubre.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 9/2006, de 6 de noviembre.

FUNDAMENTOS

Primero.- La modificación, promovida por Álava Agencia de Desarrollo SA, tiene por objeto transformar 1,496 Has de suelo no urbanizable de protección de recursos agrícolas en Suelo Urbanizable Industrial SAUI-3 de manera que junto al suelo urbanizable industrial adyacente en el municipio de Laguardia se constituye un polígono industrial de 34 Has.

Segundo.- La creación del nuevo suelo industrial se justifica en el interés en desarrollar un nuevo polígono en el frente de la carretera A-124, toda vez que los vecinos polígonos industriales Casablanca y El Carrascal están ya desarrollados al tener sus parcelas vendidas en su totalidad.

Tercero.- Asimismo, el informe definitivo de Impacto Ambiental que emite el Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad del